



Euskadiko Industria Ekobarometroa

2025

TXOSTEN OSOA





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD

A Planteamendu metodologikoa

A.1. Planteamendua eta helburuak – Irismena

A.2. Fitxa tekniko orokorra

B Ikerketaren emaitzak

B.1. Elkarrizketatutako enpresen ezaugarriak

B.2. Baliabideen eraginkortasuna enpresaren lehiakortasuna hobetzeko

B.3. Ekoberrikuntza, teknologia berde eta digitalen implementazioa

B.4. Enpresetako enplegatuen prestakuntza

C Ondorioak

D Eranskinak

I. Eranskina - Fitxa teknikoa

II. Eranskina - Galdetegia

A.1. Planteamendua eta helburuak - Irismena

Planteamendua eta helburuak

- ▶ “Industria Ekobarometro” terminoa aipatzen denean, hainbat alditan datuak hartzearen bidez industria-enpresek ingurumenaren inguruan duten pertzepzioa eta agertzen dituzten jarrerak eta portaerak ebaluatzeko azterlana adierazten da. Azterlan horri esker, industria-enpresek ingurumenaren garrantzia eta etorkizuneko ingurumen-jarduna baldintzatzen duten faktoreak nola hautematen dituzten azter daiteke, ingurumen-arloko programa eta politika eraginkorragoen diseinua errazten zaio Administrazioari, eta joerak eta enpresen ingurumen-kudeaketaren heldutasuna identifikatu daitezke.
- ▶ 2025eko Industria Ekobarometroa Eusko Jaurlaritzak **euskal industriaren ingurumen-jarreraren inguruko ezagutzak jasotzeko eta jarrera horren jarraipena egiteko balio duen tresna sistematikoa** batekin jarraitzeko duen borondatearen barruan kokatzen da. Ekobarometroak produkzio-ehunaren ingurumen-konpromisoaren bilakaera ikuspegi kuantitatibo batetik aztertzea du helburu, baita enpresek jasangarritasunaren, baliabideen eraginkortasunaren eta ekonomia jasangarri baterako trantsizioaren arloan egindako aurrerapenak eta dituzten erronkak aztertzea ere.
- ▶ Horrela, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Ekobarometroa ez da azterlan isolatu bat. Aitzitik, eskualdeko jasangarritasuna eta industria-garapena aztertzeko diseinatutako Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-estrategia zabalago baten barruan kokatuta dago.
- ▶ 2000. urteko lehen edizioaz geroztik, Industria Ekobarometroa **Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politikak planifikatzeko erreferentziatzeko tresna** gisa finkatu da. Hainbat ediziotan (2000., 2002., 2004., 2007., 2011., 2020. eta, orain, 2025. urteetan), enpresa-kudeaketan ingurumen-aldagaien inguruan agertutako pertzepzioa, jarrera eta integrazio-maila ezagutzeko aukera eman du azterlanak, eta, horren bidez, jasangarritasuna euskal industria-estrategian pixkanaka nola txertatzen den erakusten duen **bilakaera-ikuspegi** bat eskaini du.
- ▶ Beraz, **2025eko Industria Ekobarometroaren** bidez euskal industria-enpresek jasangarritasunari lotutako erronkei buruz duten iritzia jaso nahi da, eta jasangarritasuna zer neurritan bihurtu den **errendimendu- eta lehiakortasun-faktore estrategiko** baloratu nahi da. Era berean, diagnostiko-tresna bat da, oztopoak, aukerak eta hobetzeko arloak identifikatzeko aukera ematen duena eta, horren bidez, enpresa-sektorean ingurumen-arloko etorkizuneko estrategiak bideratzen laguntzen duena. Horrez gain, egungo testuingurura egokitutako azterketa-elementu berriak sartu dira oraingo neurketan, eta esparru berriak gaineratu dira, hala nola ekoberrikuntza eta jasangarritasunari, ingurumenari eta digitalizazioari lotutako alderdien inguruko enpresa-prestakuntza.

Irismena

› Irismen tematikoari dagokionez, 2025eko Industria Ekobarometroak enpresaren ingurumen-kudeaketaren esparru nagusiak biltzen ditu:

- › Eraginkortasuna materialen, energiaren eta uraren erabileran.
- › Ingurumen-hobekuntzari lotutako jarduketak eta haien motibazioak.
- › Neurri jasangarriak garatzeko oztopoak.
- › Baliabideen eraginkortasuna hobetzearen ondoriozko inpaktu ekonomikoak eta produkzio-inpaktuak.
- › Teknologia berdeak eta digitalak txertatzea eta berrikuntza horien onurak identifikatzea.
- › Jasangarritasunaren eta digitalizazioaren esparruan enpresa-prestakuntza inplementatzea.

› Lortutako informazio guztiari esker, euskal industria-sektorearen ingurumen-egoeraren mapa eguneratua lortu ahal izango dugu, eta hori lagungarria izango da bilakaerak identifikatzeko eta etorkizunean jasangarritasunaren eta ekonomia zirkularraren printzipioekin bat etorriko den industria lehiakorrago bat bultzatuko duten jarduketak planifikatzeko.

A.2. Fitxa tekniko orokorra

Azterketa mota



Kuantitatiboa

Erabilitako teknika



Telefono bidezko elkarrizketa (CATI) galdetegi egituratuaren ereduarekin, eta online errefortzua (CAWI) elkarrizketa online egiteko eskatu duten enpresentzat

Analisi-unibertsoa



10 langile baino gehiago dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko industria-enpresak

Landa-lana



2025eko abuztuan eta irailean

Planteamendu metodologikoaren xehetasuna



567 elkarrizketa egin zaizkie Euskal Autonomia Erkidegoan 10 langile baino gehiago dituzten enpresetan erantzukizuneko karguak dituzten pertsoneri, telefonoz eta online. Ihebek emandako datu-base batekin eta Ikerfelek sortutako datu-baseekin lan egin da.

Lagin-errorea \pm % 4,20koa izan da, eta konfiantza-maila, berriz, % 95,5ekoa (2σ).

Ondoren, datuak Lurralde Historikoaren eta langile kopuruaren arabera haztatu dira, sektoreko errealitatea irudikatzeko.

Enpresa-tipologia bakoitzean egindako elkarrizketen kopurua honako hau izan da:

	Guztira	ENPRESA-TIPOLOGIA			
		Industria enpresak	IPPC	I+G+B	Gizarte ekonomia
Elkarrizketa kopurua	567	401	77	54	35
LAGINKETA-ERROREA	3,7%	4,6%	9,4%	11,6%	15,8%

- › Euskadiko 2025eko Industria Ekobarometroa egiteko, elkarrizketak egin zaizkie 10 langile edo gehiago dituzten Euskadiko industria-enpresei. Nolanahi ere, enpresa horiek lau talde handitan bereizi dira, ikusi dugunez:
 - › **IPPC enpresak:** Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Bateratuari lotuta dauden industria-enpresak dira, kutsatzeko ahalmen handia duten instalazioetan aplikatzen diren neurriak bete behar dituztenak.
 - › **I+G+B enpresak:** lehiakortasuna hobetzeko eta produktu, zerbitzu edo prozesu berriak sortzeko ikerketa, garapen eta berrikuntzako jarduerak egiten dituzten industria-enpresak.
 - › **Gizarte-ekonomiako enpresak:** beren jarduera ekonomikoa gizarte-balioekin uztartzen duten industria-enpresak, pertsonak kapitalaren gainetik jartzen dituztenak eta etekinak helburu komunitarako berrinbertitzen dituztenak.
 - › **Industria-enpresak:** plantillan 10 langile edo gehiago dituzten industria-enpresarik “orokorrenak” dira.
- › Geroago, azterlanaren metodologiari buruzko eranskinean, Euskadiko Industria Ekobarometro honetan elkarrizketatutako enpresak zer industria-sektoretakoak diren zehaztuko da.

B. Ikerketaren emaitzak

B.1. Elkarrizketatutako enpresen ezaugarriak

B.2. Baliabideen eraginkortasuna enpresaren
lehiakortasuna hobetzeko


B.3. Ekoberrikuntza, teknologia berde eta digitalen
implementazioa

B.4. Enpresetako enplegatuen prestakuntza

Elkarrizketatutako enpresen ezaugarriak

- › Lehen kapitulu honen helburua da 2025eko Industria Ekobarometroan parte hartu duten enpresen profil estrukturala eta operatiboa deskribatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-ehunaren ikuspegi orokorra eskainiko diguna. Azterketak zehatz-mehatz jasotzen ditu euskal industria-enpresak definitzen dituzten aldagai soziodemografiko eta antolamendu-aldagai nagusiak. Zehazki, honako hauek:
 - › Zer lurralde historikotan kokatuta dauden.
 - › Enpresen tamaina, langile kopuruaren arabera.
 - › Enpresen antzintasuna.
 - › Enpresa taldeetako kideak diren enpresak.
 - › Bezeroen sektorearen jatorria.
 - › Enpresen salmenten banaketa geografikoa.
 - › Azken hiru urteetako fakturazioa.

Enpresak kokatuta dauden lurralde historikoa



(P2) – Zer lurralde historikotan dago zuen lantegia?

Oinarria: elkarriketatutako pertsonen guztizkoa

* 2025ean sartu berri den tipologia. Balio beza ñabarduna honek txostenaren gainerakoan.

Enpresen tamaina

› Langile kopurua kontuan hartuta, honela sailka ditzakegu aztertutako enpresak:

- › **Enpresa txikiak**: 10-50 langile dituzten enpresak.
- › **Enpresa ertainak**: 50-250 langile dituzten enpresak.
- › **Enpresa handiak**: 250 langile baino gehiago dituzten enpresak.


- › Aztertutako enpresen tamaina aztertuz gero ikus daitekeenez, gehienak 10-50 langile dituzten enpresa txikiak dira, % 20 enpresa ertainak eta % 4 enpresa handiak.
- › Hala ere, 2020an datuak hartu zirenean ikusi bezala, enpresa ertain eta handien proportzioa handiagoa da IPPC eta I+G+B enpresen artean.
- › 2020an kontsultatutako enprekin alderatuta, enpresen tamainak beherakada nabarmena izan duela ikus daiteke. Enpresa ertain eta handien ehunekoaren beherakadan ez ezik, enpresa-tipologia bakoitzeko langileen batez besteko kopuruan ere islatu da hori.

Enpresen tamaina


Industria-enpresak











IPPC



I + G + B



Gizarte-ekonomiakoak



(P4) – Gutxi gorabehera zenbat pertsonak osatzen dute zuen enpresako plantilla lantegi honetan?




Oinarria: elkarrizketatutako pertsonen guztizkoa

Enpresen antzintasuna





- › Kotsulatutako enpresen **antzintasunari** dagokionez, antzintasunik handiena dutenak **IPPC** enpresak dira (**45,7 urte batez beste**). IPPC enpresen atzetik, 10 langile baino gehiago dituzten **industria-enpresak** kokatu dira batez besteko antzintasunik handieneko bigarren tipologia gisa (**39,7 urte**). Hirugarrenak eta laugarrenak, berriz, **I+G+B** enpresak eta **gizarte-ekonomiakoak** dira, **30 urte inguruko** antzintasunarekin.
- › Euskadiko 2020ko Industria Ekobarometroan jasotako batez besteko antzintasunarekin alderatuta ikus daitekeenez, I+G+B enpresen antzintasuna nabarmen jaitsi da, eta 10 langile baino gehiago dituzten industria-enpresena, berriz, neurri handian igo da. Bestalde, IPPC enpresen batez besteko antzintasunak ia egonkor jarraitu du.

Enpresen antzintasuna





Industria-enpresak




IPPC



I + G + B



Gizarte-ekonomiakoak



Batez besteko antzintasuna

2020	32,7
2025	39,7

Batez besteko antzintasuna

2020	47,1
2025	45,7

Batez besteko antzintasuna

2020	38,5
2025	31,7

Batez besteko antzintasuna

2025	30,2
------	------

(P0) – Esango zenidake zein den enpresaren antzintasuna?


Oinarria: elkarriketatutako pertsonen guztizkoa

Enpresa taldeetako kideak diren enpresak


- › **Enpresa talde bateko kideak diren enpresen** ehunekoak 2020. urtearekin alderatuta beherakada nabarmena izan duela ikus daiteke.
- › IPPC eta I+G+B enpresen kasuan, ia erdiak dira enpresa talde batekoak, eta 10 langile baino gehiagoko industria-enpresen eta gizarte-ekonomiako enpresen kasuan, berriz, ehunekoa nabarmen txikiagoa da (% 26 eta % 32, hurrenez hurren).
- › Lau taldeak kontuan hartuta, enpresa talde batekoak diren enpresen ehunekoa % 31 da.

Enpresa talde bateko kideak diren enpresak


Industria-enpresak







IPPC



I + G + B



Gizarte-ekonomiakoak



(P0A) – Zuen enpresa kidea al da enpresa talde batean?

Oinarria: elkarriketatutako pertsonen guztizkoa

Bezeroen jatorria


Industria-enpresak



IPPC






I + G + B







Gizarte-ekonomiakoak







Azken kontsumitzaileak



Administrazio publikoa



Beste batzuk



(P6) – Zein da zuen bezero nagusia?

Oinarria: elkarrizketatutako pertsonen guztizkoa

Enpresen salmenten banaketa geografikoa

- › Enpresen salmenten banaketa geografikoari dagokionez ere, antzekotasunak ikusten ditugu aztertutako kolektiboen artean. Oro har, **salmentak Espainiako Estatuaren barruan egiten dira** (salmenten % 60 baino gehiago kasu guztietan). Estatuaren atzetik, Europako gainerako herrialdeetara zuzentzen dira salmentak, eta azkenik, ehunekorik txikienarekin, munduko gainerako herrialdeetara.
- › I+G+B enpresen kasuan, azpimarratu beharra dago Europatik kanpo egiten diren salmenten ehunekoa, gainerako enpresa-tipologiekin alderatuta.
- › 2020ko datuekin alderatuta, ez da alde esanguratsurik hautematen.


Enpresen salmenten banaketa geografikoa

Industria-enpresak

IPPC

I + G + B


Gizarte-ekonomiakoak



(P7) – Gutxi gorabehera nola banatzen dira zuen enpresaren salmentak gune geografiko hauen arabera?

Oinarria: elkarriketatutako pertsonen guztizkoa

Azken hiru urteetako fakturazioa



(P5) – Zein izan da gutxi gorabeherako fakturazioaren batez besteko bolumena azken hiru urteetan?*

Oinarria: Elkarriketatutako pertsonen guztizkoa

* Batez besteko fakturazioa milioi eurotan

B. Ikerketaren emaitzak

B.1. Elkarrizketatutako enpresen ezaugarriak

B.2. Baliabideen eraginkortasuna enpresaren
lehiakortasuna hobetzeko

B.3. Ekoberrikuntza, teknologia berde eta digitalen
implementazioa

B.4. Enpresetako enplegatuen prestakuntza


Baliabideen eraginkortasuna lehiakortasuna hobetzeko

- › Ondoren, sakonki aztertuko dugu euskal industria-enpresek zer mailatan integratzen duten baliabideen eraginkortasuna lehiakortasun- eta jasangarritasun-faktore estrategiko gisa. Azterketa honetan, zehazki, honako esparru hauetako emaitzak jaso dira:
 - › Enpresaren lehiakortasuna hobetzeko kontuan hartutako **helburu** nagusiak.
 - › Eraginkortasuna hobetzeko **egindako ekintzak** eta ekintza horiek egiteko **arrazoiak**.
 - › **Ekintzek** ekoizpen-kostuetan izan dituzten **ondorioak**.
 - › Ekintzak inplementatzean agertutako **oztopoak**.
 - › Egindako ekintzei esker **fakturazioak** izan duen igoera eta gaur egun egiten ari diren ekintzen ondorioz fakturazioak **etorkizunean** izango duen igoera.
 - › Baliabideen eraginkortasuna hobetzeko egindako **inbertsioa**.
 - › Ustez baliabideen eraginkortasuna maximizatuko luketen **ekintzak**.

Enpresaren lehiakortasuna hobetzeko helburu nagusiak

- › Aztertutako enpresa-tipologia guztiek **enpresen lehiakortasuna hobetzeko antzeko helburu estrategikoak** dituzte, neurri handiagoan edo txikiagoan. Hona hemen helburu nagusiak:
 - › Produktibitatea handitzea.
 - › Kostuak murriztea.
 - › Teknologia eta berrikuntza txertatzea.
 - › Merkatu berriak irekitzea eta/edo nazioartekotzea.
 - › Giza kapitala hobetzea.
- › 10 langile baino gehiagoko industria-enpresek adierazi dute beren helburu nagusiak ekonomikoak direla, hala nola produktibitatea handitzea (% 42) eta kostuak murriztea (% 41).
- › IPPC enpresen helburu nagusia ere kostuak murriztea da (% 46), baina teknologia eta berrikuntza txertatzeko helburuak ere garrantzi handia du (% 44).
- › Kontsultatutako I+G+B enpresen kasuan, logikoa denez, helburu nagusia teknologia eta berrikuntza txertatzea da (% 52), eta, haren atzetik, merkatu berriak irekitzea eta nazioartekotzea (% 39).
- › Azkenik, gizarte-ekonomiako enpresen helburu nagusia produktibitatea handitzea da (% 42), eta garrantzi bera eman diete honako helburu hauei: teknologia eta berrikuntza txertatzea (% 28), kostuak murriztea (% 27), giza kapitala hobetzea (% 27) eta merkatu berriak irekitzea eta nazioartekotzea (% 27).

Enpresaren lehiakortasuna hobetzeko helburu nagusiak



(P8) – Zeintzuk dira, une honetan, zuen enpresaren lehiakortasuna hobetzeko bi helburu garrantzitsuenak?*

Oinarria: elkarriketatutako pertsonen guztizkoak


* Iradokitako galdera eta erantzun anitzekoa; beraz, ehunekoak % 100etik gorakoak izan daitezke.

Eraginkortasuna hobetzeko egindako ekintzak


- › **Kontsultatutako enpresa-tipologia guztiek, batez beste, 5 ingurumen-ekintza baino gehiago egin dituzte beren eraginkortasuna hobetzeko, eta datu horiek modu esanguratsuan gainditzen dituzte 2020an erregistratutakoak.** Enpresa-tipologia guztiak gehien egiten ari diren ekintzak honako hauek dira:
 - › Energia aurreztea.
 - › Enpresak sortutako hondakinak minimizatzea.
 - › Materialak aurreztea.
 - › Hondakinak beste enpresa batean birziklatzea.
 - › Ura aurreztea.
 - › Berrerabileraren bidez birziklatzea.

Eraginkortasuna hobetzeko egindako ekintzak

Industria-enpresak



IPPC



(P9) – Zer ekintza egiten ari da zuen enpresa bere baliabideak eraginkorragoak izan daitezen?

Oinarria: elkarriketatutako pertsonen gutzizkoa

* Iradokitako galdera eta erantzun anitzekoa; beraz, ehunekoak % 100etik gorakoak izan daitezke.

Eraginkortasuna hobetzeko egindako ekintzak

I + G + B




Ekintzen batez besteko kopurua

4,0

5,6

Gizarte-ekonomiakoak



5,4

(P9) – (P9) – Zer ekintza egiten ari da zuen enpresa bere baliabideak eraginkorragoak izan daitezen?

Oinarria: elkarriketatutako pertsonen guztizkoa

* Iradokitako galdera eta erantzun anitzekoa; beraz, ehunekoak % 100etik gorakoak izan daitezke.

Ekintzak egiteko arrazoiak

- › 10 langile baino gehiagoko industria-enpresek eta IPPC enpresek neurri berean hartu dituzte kontuan **enpresaren kontzientziazioa eta konpromisoa eta indarrean dauden legeria, estandarrak eta araudia** ekintzak egiteko arrazoi gisa. I+G+B enpresek eta gizarte-ekonomiakoek, berriz, garrantzi handiagoa ematen diote enpresaren kontzientziazioari eta konpromisoari.
- › **I+G+B enpresen** kasuan, eraginkortasuna hobetzera bideratutako ekintzak egiterakoan **bezeroen eskakizunak** eta **produktuen berrikuntza** kontuan hartu dituztela adierazi duten enpresen ehunekoa gainerako tipologietan baino handiagoa da. Arrazoi horiek dira, halaber, 10 langile baino gehiagoko industria-enpresek beren ekintzak egiteko arrazoi nagusietakoak.
- › Orain bildutako datuetan, beste enpresa batzuen lehiak indarra galdu du eraginkortasuna hobetzera bideratutako ekintzak egiteko estimulazio gisa.

Ekintzak egiteko arrazoak

Industria-enpresak

IPPC

I + G + B

Gizarte-ekonomiakoak

Enpresaren jabetzaren eta/edo
gerentziaren kontzientziakzioa eta
konpromiso pertsonala



Enpresaren jabetzaren eta/edo
gerentziaren kontzientziakzioa eta
konpromiso pertsonala



Enpresaren jabetzaren eta/edo
gerentziaren kontzientziakzioa eta
konpromiso pertsonala



Enpresaren jabetzaren eta/edo
gerentziaren kontzientziakzioa eta
konpromiso pertsonala



Legeria, araudia eta indarreko
estandarrak



Legeria, araudia eta indarreko
estandarrak



Legeria, araudia eta indarreko
estandarrak




Legeria, araudia eta indarreko
estandarrak



Bezero diren enpresen eskaera /
exijentzia



Bezero diren enpresen eskaera /
exijentzia




Bezero diren enpresen eskaera /
exijentzia




Bezero diren enpresen eskaera /
exijentzia



Produktuaren berrikuntza,
gainerakoengandik bereizteko
modu gisa



Produktuaren berrikuntza,
gainerakoengandik bereizteko
modu gisa




Produktuaren berrikuntza,
gainerakoengandik bereizteko
modu gisa



Produktuaren berrikuntza,
gainerakoengandik bereizteko
modu gisa



Beste enpresa batzuen lehia




Beste enpresa batzuen lehia



Beste enpresa batzuen lehia



Beste enpresa batzuen lehia



Beste arrazoi batzuk



Beste arrazoi batzuk



Beste arrazoi batzuk



Beste arrazoi batzuk



**Arrazoi bategen
besteko kopurua**



(P10) – Zeintzuk dira ekintza horiek zuen enpresan gauzatzeko bi arrazoi nagusiak?


Oinarria: elkarriketatutako pertsonen guztizkoa

* Iradokitako galdera eta erantzun anitzekoa; beraz, ehunekoak % 100etik gorakoak izan daitezke.

Ekintzek ekoizpen-kostuan izan dituzten ondorioak

- › Ekoizpena eraginkorragoa izateko ekintzak egin arren, handia da enpresa-tipologia bakoitzaren barruan **ekoizpen-kostuak handitu** egin direla adierazi duten enpresen ehunekoa.
- › **IPPC eta gizarte-ekonomiako enpresek ekoizpen-kosten eraginkortasunerako egindako ekintzak** dira **ondoriorik positiboena** izan dutenak, elkarriketatutako enpresen erdiek, gutxi gorabehera, adierazi baitute ekoizpen-kostuak murriztu dituztela. Industria-enpresen eta I+G+B enpresen kasuan, ekoizpen-kostuak murriztu dituztela adierazi duten enpresen ehunekoa txikiagoa da (% 32 eta % 37, hurrenez hurren).
- › Ekintzek ekoizpen-kostuan izan dituzten ondorioen testuinguruan, BBVA Corporate % Investment Banking-ek 2024ko uztailean argitaratu zuen artikulu baten arabera, deskarbonizazioa bultzatzeko teknologien % 55 inguru ziren errentagarriak. Aitzitik, teknologien gainerako % 45ak ez ziren errentagarritzat hartzen hainbat arrazoi direla eta, hala nola eskalarik eza, ekoizpen-kostuak eta ezartzeko bizkortasuna.

Ekintzek ekoizpen-kostuan izan dituzten ondorioak



(P12) – Zer-nolako eragina izan dute azken bi urteetan ekoizpen-kostuetan inplementatu dituzten ekintzek? Ekoizpen-kostuak...

Oinarria: elkarriketatutako pertsonen gutzitza

Ekoizpen-kostuen aldakuntza

- › Beren ekoizpen-kostuek behera egin dutela adierazi duten enpresen artean, aldeak ikus daitezke. IPPC eta I+G+B enpresek lortu dute ekoizpen-kostuak proportziorik handienera murriztea (% 12tik gorako proportzioan). 10 langile baino gehiagoko industria-enpresen eta gizarte-ekonomiakoen kasuan, berriz, ehuneko txikiagoa da (% 7,6 eta % 5,5, hurrenez hurren).
- › Bestalde, beren ekoizpen-kostuek gora egin dutela adierazi duten enpresak % 10 baino gehiago dira industria-enpresen, I+G+B enpresen eta gizarte-ekonomiakoen artean. IPPC enpresen artean, berriz, ehuneko ez da hain handia, % 9,1koa.


Ekoizpen-kostuen aldakuntza

Industria-enpresak

IPPC

I + G + B

Gizarte-ekonomiakoak



(P13) – Gutxi gorabehera, zer ehunekotan igo dira/jaitsi dira ekoizpen-kostuak? *


Oinarria: beren ekoizpen-kostuak igo edo jaitsi direla adierazi duten enpresak

Ekintzak egiteko garaian agertutako oztopoak

- › 2025ean, **gora egin du enpresek adierazitakoaren arabera** ekintzak egiteko garaian **izan dituzten oztopoen batez besteko kopuruak**.
- › **Ekintzak egiteak dakarren kostua** izan da, berriz ere, aztertutako enpresa-tipologiek izan duten **oztopo nagusia**.
- › Aztertutako industria-enpresen, I+G+B enpresen eta gizarte-ekonomiakoen artean, bigarren mailako oztopoak honako hauek izan dira: horrelako ekintzetan esperientzia espezifikorik ez izatea (% 57, % 48 eta % 63) eta administrazio- edo lege-prozeduren konplexutasuna (% 55, % 50 eta % 54).
- › IPPC enpresen kasuan, berriz, honako hauek izan dira oztopo nagusiak, ekintzen kostuaren atzetik: administrazio- edo lege-prozeduren konplexutasuna (% 63) eta ingurumen-legeria enpresara egokitzeko zailtasuna (% 50).

Ekintzak egiteko garaiak agertutako oztopoak

Industria-enpresak



Oztopoen batez besteko kopurua



IPPC




(P11) – Zuen enpresak oztopo hauetakoren batekin topo egin du baliabideen eraginkortasuna hobetzeko ekintzak garatzeko orduan?

Oinarria: elkarriketatutako pertsonen guztizkoa

* Iradokitako galdera eta erantzun anitzekoa; beraz, ehunekoak % 100etik gorakoak izan daitezke.

Ekintzak egiteko garaietan agertutako oztopoak

I + G + B



Oztopoen batez besteko kopurua



Gizarte-ekonomiakoak



(P11) – Zuen enpresak oztopo hauetakoren batekin topo egin du baliabideen eraginkortasuna hobetzeko ekintzak garatzeko orduan?

Oinarria: elkarriketatutako pertsonen gutzitza


* Iradokitako galdera eta erantzun anitzekoa; beraz, ehunekoak % 100etik gorakoak izan daitezke.

Baliabideen eraginkortasuna maximizatuko luketen ekintzak


- › Kasu honetan ere, aztertutako enpresa-tipologiaren portaera antzeko samarra izan da.
- › 2020an bezala, **produktuen, zerbitzuen eta prozesuen ingurumen-hobekuntzarako laguntza ekonomikoak dira enpresaren baliabideen eraginkortasuna maximizatzen gehien lagunduko lukeen ekintza**. Laguntza mota hori bereziki hartzen da kontuan IPPC enpresetan, % 80k baino gehiagok aipatu baitute.
- › Bigarrenik, alde handiarekin bada ere, kontsultatutako enpresen % 30ek adierazi dute **prestakuntza sustatzeak** lagunduko liekeela baliabideen eraginkortasuna maximizatzen. Haren atzetik, ikus daiteke oso kontuan hartzen dela **egungo eta etorkizuneko legediari buruzko informazioa** eraginkortasuna maximizatzeko.
- › Batez beste, elkarrizketatutako enpresek hiru laguntza mota inguru aipatu dituzte.

Baliabideen eraginkortasuna maximizatuko luketen ekintzak

Industria-enpresak



IPPC



(P17) – Aipatuko dizkizudan ekintza hauetatik, zeintzuk lagunduko lukete gehien zuen enpresak baliabideen eraginkortasuna maximiza dezan?

Oinarria: elkarriketatutako pertsonen guztizkoa

* Iradokitako galdera eta erantzun anitzekoa; beraz, ehunekoak % 100etik gorakoak izan daitezke.

Baliabideen eraginkortasuna maximizatuko luketen ekintzak

I + G + B




Ekintzen batez
besteko kopurua

2,4

2,8

Gizarte-ekonomiakoak



2,9

(P17) – Aipatuko dizkizudan ekintza hauetatik, zeintzuk lagunduko lukete gehien zuen enpresak baliabideen eraginkortasuna maximiza dezan?


Oinarria: elkarriketatutako pertsonen guztizkoa

* Iradokitako galdera eta erantzun anitzekoa; beraz, ehunekoak % 100etik gorakoak izan daitezke.

Fakturazioaren igoera baliabideen eraginkortasuna hobetzeko ekintzei esker

- › Enpresen erdiek baino gehiagok adierazi dute **materialen eraginkortasunaren arloan egin dituzten jarduketek ez dutela ondoriorik izan enpresaren fakturazioan.**
- › Hala ere, ikus daitekeenez, enpresen ehuneko handi baten fakturazioa igo egin da % 10etik beherako proportzioan. Batez ere IPPC enpresak eta I+G+B enpresak nabarmendu dira.

Fakturazioaren igoera baliabideen eraginkortasuna hobetzeko ekintzei esker



(P14) – Azken bi urteetan, zer neurritan handitu da zuen enpresaren fakturazioa, baliabide materialen eraginkortasuneko jarduketengatik?

Oinarria: elkarriketatutako pertsonen guztizkoa

Fakturazioaren etorkizuneko igoera baliabideen eraginkortasuna hobetzeko ekintzen ondorioz

- › Etorkizunari dagokionez, **IPPC eta I+G+B enpresak baikorragoak dira** 10 langile baino gutxiagoko industria-enpresak eta gizarte-ekonomiakoak baino. Izan ere, kontsultatutako pertsonen erdiek, gutxi gorabehera, uste dute beren fakturazioa % 1-10 igoko dela materialen eraginkortasunaren arloan egiten ari diren ekintzei esker.
- › Industria-enpresen eta gizarte-ekonomiakoen jarrera kontserbadoreagoa da. Izan ere, gehienek uste dute fakturazioa ez dela handituko materialen eraginkortasunaren arloan egiten ari diren ekintzen ondorioz.

Fakturazioaren etorkizuneko igoera baliabideen eraginkortasuna hobetzeko

ekintzen ondorioz

Industria-enpresak

IPPC

I + G + B

Gizarte-ekonomiakoak

Fakturazioak ez du aldaketarik izango



Fakturazioa % 1 eta % 10 artean haziko da



Fakturazioa % 11 eta % 25 artean haziko da



Fakturazioa % 26 eta % 50 artean haziko da



Fakturazioa % 50 baino gehiago haziko da




(P15) – Eta zer neurritan uste duzu haziko dela zuen enpresaren fakturazioa, egingo dituzuen materialen eraginkortasuneko jarduketengatik?

Oinarria: elkarriketatutako pertsonen guztizkoa

Baliabideen eraginkortasuna hobetzeko inbertsioa

- › Kontstatutako enpresa gehienek **adierazi dute inbertsioren bat egin dutela baliabide materialen eraginkortasuna hobetzeko**. Nagusiki, inbertsio hori enpresaren urteko fakturazioaren % 0-5koa izan da.
- › Gizarte-ekonomiako enpresak eta I+G+B enpresak dira horretarako inbertsiorik egin ez dutela proportziorik handiengan aitortu dutenak (% 16 eta % 12, hurrenez hurren). Industria-enpresen eta IPPC enpresen kasuan, berriz, ehuneko txikiagoa da.
- › Bestalde, inbertsio handiagoa egin dutela adierazi duten enpresak IPPC eta I+G+B enpresak dira. Izan ere, gutxienez % 20k egin dute % 5etik gorako inbertsioa.
- › Aurreko datuekin alderatuta, ez dugu alde nabarmenik ikusten, inbertsioari buruzko galdera horiei erantzun ez dieten enpresen ehunekoan izan ezik.

Baliabideen eraginkortasuna hobetzeko inbertsioa



(P16) – Azken bi urteetan, zenbat inbertitu duzue urtean, batez beste, baliabide materialen eraginkortasuna hobetzeko?

Oinarria: elkarriketatutako pertsonen gutzitza

B. Ikerketaren emaitzak

B.1. Elkarrizketatutako enpresen ezaugarriak

B.2. Baliabideen eraginkortasuna enpresaren
lehiakortasuna hobetzeko

B.3. Ekoberrikuntza, teknologia berde eta digitalen
implementazioa

B.4. Enpresetako enplegatuen prestakuntza

Ekoberrikuntza, teknologia berde eta digitalen inplementazioa


- › Kapitulu hau euskal industria-enpresen ekoberrikuntzaren eta eraldaketa teknologikoaren mailari buruzkoa da, eta beren estrategiaren barruan ekoizpen-prozesuetan teknologia berdeak eta digitalak nola txertatzen ari diren aztertzen du. Zehazki, honako alderdi hauek azertu dira:
 - › Azken hiru urteetan txertatutako teknologia berdeak eta digitalak.
 - › Ekoberrikuntzaren onuren garrantzia.
 - › Enpresen ekoberrikuntzaren eta sektoreko gainerako enpresenaren arteko alderaketa.

Azken 3 urteetan txertatutako teknologia berdeak eta digitalak

- › **IPPC eta I+G+B enpresek sartu edo eguneratu dituzte teknologia berde eta digital gehien (enpresako 4 ekintza baino gehiago batez beste).** 10 langile baino gehiagoko industria-enpresek eta gizarte-ekonomiakoei, berriz, 3 ekintza baino gehixeago sartu dituzte, batez beste.
- › Industria-enpresek inplementatutako teknologia nagusiak ekonomia zirkularreko soluzioak (% 53), denbora errealeko energia-monitorizazioa eta kontsumo-sentsoreak (% 41) eta lantegi industrialean integratutako eguzki-energia termikoa edo fotovoltaikoa (% 40) izan dira.
- › Bestalde, IPPC enpresek inplementatutako teknologia nagusia denbora errealeko energia-monitorizazioa eta kontsumo-sentsoreak izan dira (kontsultatutako enpresen % 70ek baino gehiagok inplementatu dute). Bigarrenik, ekonomia zirkularreko soluzioak (% 62) eta ingurumen-kudeaketako sistema informatizatuen inplementazioa (% 52) kokatu dira.
- › I+G+B enpresei dagokienez, neurririk handienez inplementatutako teknologia berdeak eta digitalak ekonomia zirkularreko soluzioak eta denbora errealeko energia-monitorizazioa eta kontsumo-sentsoreak izan dira (enpresen % 45ek eta % 44k inplementatu dituzte, hurrenez hurren).
- › Azkenik, gizarte-ekonomiako enpresa gehienek (% 69k) adierazi dute ekonomia zirkularreko soluzioak inplementatu edo eguneratu dituztela. Ondoren, denbora errealeko energia-monitorizazioa eta kontsumo-sentsoreak izan dira bigarren teknologiarik inplementatuena edo eguneratuena.

Azken 3 urteetan txertatutako teknologia berdeak eta digitalak

Industria-enpresak



Txertatutako teknologien batez besteko kopurua

3,4

IPPC



4,3

(P18) – Beste gai bati helduz... zer teknologia berde eta digital sartu edo eguneratu dituzte zuen enpresan azken 3 urteetan?

Oinarria: elkarrizketatutako pertsonen guztizkoa

Oharra: 2025ean egindako azterlanean txertatutako galdera

* Iradokitako galdera eta erantzun anitzekoa; beraz, ehunekoak % 100etik gorakoak izan daitezke.

Azken 3 urteetan txertatutako teknologia berdeak eta digitalak



(P18) – Beste gai bati helduz... zer teknologia berde eta digital sartu edo eguneratu dituzte zuen enpresan azken 3 urteetan?

Oinarria: elkarrizketatutako pertsonen guztizkoa

Oharra: 2025ean egindako azterlanean txertatutako galdera


* Iradokitako galdera eta erantzun anitzekoak; beraz, ehunekoak % 100etik gorakoak izan daitezke.

Berrikuntzaren onuren garrantzia

- › Ekonomia berdeak eta digitalak inplementatzearen onurei emandako garrantziari dagokionez, 10 langile baino gehiagoko **industria-enpresentzat** oso garrantzitsuak edo garrantzitsu samarrak dira, oro har. Zehazki, enpresa horien gutxienez % 80k **garrantzi handia ematen diete planteatutako onurei**. Onura horien artean, araudia betetzea eta laneko arriskuak murriztea eta eragiketa-kostuak murriztea nabarmentzen dira. Aitzitik, enpresa horien % 70ek baino gehiagok aipatu badute ere, merkatu edo lizitazio berrietarako sarbidea ez da hain garrantzitsutzat hartu.
- › **IPPC** enpresen artean, **araudia betetzeari eta laneko arriskuak murrizteari eta eragiketa-kostuak murrizteari emandako garrantzi handia nabarmentzen da**. Izan ere, enpresa-tipologia horren barruan kontsultatutako ia enpresa guztientzat oso garrantzitsuak edo garrantzitsu samarrak dira onura horiek. Aztertutako gainerako onurek ere garrantzi-maila handia dute: dirulaguntza edo finantzaketa berdeak eskuratzea (% 86rentzat), ospea edo marka hobetzea (% 85rentzat) eta beste enpresa batzuekiko lehia-abantaila izatea (% 81entzat). Maila txikiago batean, merkatu edo lizitazio berrietarako sarbidea dago (garrantzitsua enpresen % 73rentzat).
- › Bestalde, **I+G+B** enpresen **gutxienez % 70entzat garrantzitsuak dira** kontsultatzean aipatutako **onura guztiak**. Onura horien artean, araudia betetzea eta laneko arriskuak murriztea eta dirulaguntza edo finantzaketa berdeak eskuratzea nabarmendu dira.
- › **Gizarte-ekonomiako** enpresei dagokienez, **araudia betetzeari eta laneko arriskuak murrizteari** eman dioten garrantzi handia nabarmentzen da (% 94k) planteatutako gainerako onuren aldean. Gainerako kasuetan bezala, merkatu edo lizitazio berrietarako sarbideak garrantzi-maila txikiagoa izan du.

Berrikuntzaren onuren garrantzia

Industria-enpresak




(P19) – Jarraian, berrikuntzarekin lotutako onura batzuk aipatuko dizkizut. Zure ustez, zer neurritan dira garrantzitsuak alderdi horiek zuen enpresarentzat?

Oinarria: elkarrizketatutako pertsonen guztizkoa

Oharra: 2025ean egindako azterlanean txertatutako galdera

Berrikuntzaren onuren garrantzia

IPPC




(P19) – Jarraian, berrikuntzarekin lotutako onura batzuk aipatuko dizkizut. Zure ustez, zer neurritan dira garrantzitsuak alderdi horiek zuen enpresarentzat?

Oinarria: elkarrizketatutako pertsonen guztizkoa

Oharra: 2025ean egindako azterlanean txertatutako galdera

Berrikuntzaren onuren garrantzia

I + G + B




(P19) – Jarraian, berrikuntzarekin lotutako onura batzuk aipatuko dizkizut. Zure ustez, zer neurritan dira garrantzitsuak alderdi horiek zuen enpresarentzat?

Oinarria: elkarrizketatutako pertsonen guztizkoa

Oharra: 2025ean egindako azterlanean txertatutako galdera

Berrikuntzaren onuren garrantzia

Gizarte-ekonomiakoak




(P19) – Jarraian, berrikuntzarekin lotutako onura batzuk aipatuko dizkizut. Zure ustez, zer neurritan dira garrantzitsuak alderdi horiek zuen enpresarentzat?

Oinarria: elkarrizketatutako pertsonen guztizkoa

Oharra: 2025ean egindako azterlanean txertatutako galdera

Ingurumen-berrikuntza, gainerako enpresenarekin alderatuta



(P20) – Zure ustez, nolakoa da zuen enpresaren ingurumen-berrikuntza, sektoreko beste enpresa batzuekin alderatuta?

Oinarria: elkarriketatutako pertsonen guztizkoa

Oharra: 2025ean egindako azterlanean txertatutako galdera

B. Ikerketaren emaitzak

B.1. Elkarrizketatutako enpresen ezaugarriak

B.2. Baliabideen eraginkortasuna enpresaren
lehiakortasuna hobetzeko

B.3. Ekoberrikuntza, teknologia berde eta digitalen
implementazioa

B.4. Enpresetako enplegatuen prestakuntza

Enpresetako enplegatuen prestakuntza

- › Azken kapitulu honetan, enpresetako langileen prestakuntzak eta gaitasunen garapenak trantsizio-prozesuaren parte gisa betetzen duten zeregina aztertzen da. Kapitulu honetan, honako esparru zehatz hauei erreparatuko diegu:
 - › Enpresaren barruan ingurumen-kudeaketari, ekonomia zirkularrari eta abarri lotutako gaitan prestakuntza duten langileak.
 - › Langileek jasangarritasunean edo digitalizazioan duten gaitasuna hobetzeko enpresek dituzten barne-planak edo protokoloak.

(P22) – Zuen enpresak ba al du jasangarritasunaren edo digitalizazioaren arloan langileen gaitasunak hobetzeko barne-planik edo protokolorik?

Oinarria: elkarriketatutako pertsonen guztizkoa

Enpresan prestakuntza duten langileak

- › 10 langile baino gehiagoko industria-enpresek **adierazi dute 3 prestakuntza-mota baino gehiago dituzten langileak dituztela batez beste**. Prestakuntza horien artean, ingurumen-kudeaketako prestakuntza eta hondakinen kudeaketako edo ekonomia zirkularreko prestakuntza nabarmentzen dira. Zehazki, gutxienez enpresen erdiek adierazi dute prestakuntza horiek dituzten langileak dituztela.
- › **IPPC enpresen** artean, prestakuntza mota horiek nabarmentzeaz gain, energia-eraginkortasunari lotutako prestakuntza duten langileak dituztela adierazi duten enpresen ehuneko handi bat ere badago. Batez beste, **gutxienez 4 prestakuntza mota** dituztela adierazi dute.
- › **I+G+B** enpresek ere batez beste **4 prestakuntza mota baino gehiago** dituzten langileak dituzte. Aurreko kasuetan bezala, ingurumen-kudeaketako prestakuntza eta hondakinen kudeaketako eta ekonomia zirkularreko prestakuntza nabarmentzen dira.
- › Azkenik, **gizarte-ekonomiako enpresek**, arestian aipatutako esparruei lotutako prestakuntza duten langileak izateaz gain, nabarmendu beharra dago erosketa berdeen eta kontratatzeke ingurumen-irizpideen inguruko ezagutzak dituzten langileez hornitutako enpresen ehuneko handia.

Enpresan prestakuntza duten langileak

Industria-enpresak



Prestakuntzen batez besteko kopurua

3,4

IPPC



4,2

(P21) – Zuen enpresak ba al du prestakuntza espezifiko duen langilerik arlo hauetakoren batean?
Oinarria: elkarriketatutako pertsonen guztizkoa

Oharra: 2025ean egindako azterlanean txertatutako galdera

* Iradokitako galdera eta erantzun anitzekoa; beraz, ehunekoak % 100etik gorakoak izan daitezke.

Enpresan prestakuntza duten langileak


I + G + B



Prestakuntzen batez besteko kopurua

4,1

Gizarte-ekonomiakoak



3,3

(P21) – Zuen enpresak ba al du prestakuntza espezifiko duen langilerik arlo hauetakoren batean?

Oinarria: elkarriketatutako pertsonen guztizkoa


Oharra: 2025ean egindako azterlanean txertatutako galdera

* Iradokitako galdera eta erantzun anitzekoa; beraz, ehunekoak % 100etik gorakoak izan daitezke.

Langileen jasangarritasun- eta digitalizazio-gaitasunerako barne-plana

- › Oro har, **sektorea nahiko kontzientziatuta eta interesatuta** dago enpresetako langileentzat jasangarritasunari eta digitalizazioari buruzko prestakuntza-ikastaroak implementatzearen inguruan.
- › IPPC eta I+G+B enpresak dira batez ere gaur egun barneko prestakuntza-plan bat ezarrita duten enpresa-tipologiak, modu planifikatuan edo informalean. Hori adierazi dute enpresa horien % 60k baino gehiagok. Gainera, laurdenek onartu dute gaur egun barneko prestakuntza-planik ez baduten ere, ezartzeko aukera baloratzen ari direla.
- › 10 langile baino gutxiagoko industria-enpresei eta gizarte-ekonomiakoei dagokienez, gehienek ez dute prestakuntza-planik ezarri, eta, gainera, bi tipologia horien barruan prestakuntza-plan horiek gaur egun lehentasunezkoak ez direla adierazi duten enpresen ehuneko nabarmentzen da.

Langileen jasangarritasun- eta digitalizazio-gaitasunerako barne-plana



(P22) – Zuen enpresak ba al du jasangarritasunaren edo digitalizazioaren arloan langileen gaitasunak hobetzeko barne-planik edo protokolorik?

Oinarria: elkarriketatutako pertsonen guztizkoa

Oharra: 2025ean egindako azterlanean txertatutako galdera

C. Ondorioak

Titulu nagusiak

› Ondoren, Euskadiko 2025eko Industria Ekobarometrotik ateratako ondorio nagusien tituluak aipatuko ditugu, eta geroago horietan sakonduko dugu:

1- Euskal industriak bere ingurumen-heldutasuna sendotu du, eta jasangarritasuna normalizatu du bere enpresa-kudeaketaren barruan.

2- 2025. urtean jauzi kualitatibo bat egin da: enpresek eraginkortasun-ekintza gehiago inplementatu dituzte, eta, batez beste, enpresa bakoitzak bost neurri baino gehiago hartu ditu.

3- Euskal industriak jasangarritasunaren balio estrategikoa aitortu du. Dagoeneko ez du kostutzat hartzen, ospea lortzeko eta desberdintzeko tresnatzat baizik.

4- Aurrerapena esanguratsua da, baina, neurri batean, desberdina: 10 langile baino gehiagoko industria-enpresek eta gizarte-ekonomiakoez IPPC eta I+G+B enpresek baino erritmo motelagoan egiten dute aurrera.


5- Ekonomia zirkularrari, energia-monitorizazioari eta energia berriztagarriei lotutako teknologiak sektoreko ekoberrikuntzaren zutabe bihurtu dira.

6- Egitura-erronkek beren horretan diraute: kostu ekonomikoa eta konplexutasun administratiboa dira oraindik ere berrikuntzarako oztopo nagusiak.



Azterlanaren testuinguru orokorra eta garrantzia

- 2025eko Industria Ekobarometroa produkzio-eredua Europan zein Autonomia Erkidegoan sakonean eraldatzen ari den une batean garatu da. Gaur egun, trantsizio ekologikoaren oinarri diren hainbat plan daude, hala nola Europako Itun Berdea, Basque Green Deal Agenda edo Ekonomia Zirkularreko eta Bioekonomiako 2030eko Estrategia, eta euskal industriak erronka bikoitza du aurrean: lehiakortasunari eustea eta eredu ekologiko baterantz aurrera egitea.
